

AMEZKETAKO BIZTANLERIAREN ANALISI SOZIODEMOGRAFIKOA


1. BILAKAERA SOZIODEMOGRAFIKOA

1.1. Biztanleriaren bilakaera

a.- Bolumena


[1. Grafikoa]

Biztanleriaren bilakaera (1842=100) | Amezketa eta bere testuingurua, 1842-2011



[2. Grafikoa]

Biztanleriaren bilakaera (2000=100) | Amezketa eta bere testuingurua, 2000-2016




1. taula: BIZTANLERIA BOLUMENA. AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2000-2016					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa- eremua	Tolosaldea	Gipuzkoako landa- eremua	Gipuzkoa
2000	989	14.516	44.553	62.058	679.370
2004	980	15.376	45.380	63.605	686.513
2008	983	16.414	46.649	67.253	701.072
2012	976	16.980	48.099	69.310	712.097
2016	938	17.190	48.893	70.187	717.832
Hazkunde-tasa krisialdian					
2008/12	-0,7	3,4	3,1	3,1	1,6
2012/16	-3,9	1,2	1,7	1,3	0,8

Iturria: EUSTAT eta INE. Udal errolda.

b.- Hazkunde begetatiboa

[3. Grafikoa]

Biztanleriaren hazkunde begetatiboa | Amezketa, 1975-2015



Amezketak azken hamarkadetan biztanleak galdu arren, baita milurtekoaren hazkunde demografiko orokorraren testuinguruan ere, ugalkortasun tasa oso altua izan ohi du Tolosaldeako landa-eremuko balioetan kokatuz (2000/07).

2008 urteaz geroztik ugalkortasuna apalagoa izateko joera gailendu da Amezketan, landa-eremuetako errealitatetik aldenduz. Dena den, jaiotza kopuruak heriotzena baino zertxobait altuagoa izaten jarraitzen du. Hau da, hazkunde begetatibo positiboari eusten dio.

2. taula: JAIOTZAK, HERIOTZAK, HAZKUNDE BEGETATIBOA ETA UGALKORTASUNA. AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2000-2015					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa- eremua	Tolosaldea	Gipuzkoako landa- eremua	Gipuzkoa
2000/2007					
Jaiotzak mila biztanleko	12,0	12,9	11,1	11,0	9,6
Heriotzak mila biztanleko	11,0	8,4	9,1	9,2	8,8
Hazkunde begetatiboa	0,1	0,5	0,2	0,2	0,1
Ugalkortasun tasa	53,2	53,6	45,5	46,1	38,9

2008/2015					
Jaiotzak mila biztanleko	10,0	12,2	10,9	11,9	9,6
Heriotzak mila biztanleko	9,4	8,5	9,2	9,0	9,0
Hazkunde begetatiboa	0,1	0,4	0,2	0,3	0,1
Ugalkortasun tasa	48,7	53,8	48,9	53,5	42,8


Oharra: Datuek epealdi bakoitzeko urteko bataz bestekoa adierazten dute.

Iturria: EUSTAT eta INE. Udal errolda.

c.- Osaera adinaren arabera

[4. Grafikoa]

Biztanleriaren bilakaera adinaren arabera | Amezketa, 1981-2011



Azken 30 urteetan gazteen bolumenaren jaitsiera fenomeno oso nabarmena izan da, eta azken hamarkadan ere, hauen proportzioa gutxitze joeran mantendu da. Gauzak horrela, azpimarratzekoa da Amezketako 15-29 urtekoen urritasuna, baita beste landa-eremuekin alderatuta ere.

3. taula: BIZTANLERIA ADINAREN ARABERA (%). AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2006 eta 2016					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa-eremua	Tolosalde	Gipuzkoako landa-eremua	Gipuzkoa
2006					
0-14 urte	14,4	15,4	14,4	13,7	13,1
15-29 urte	14,8	17,3	17,4	17,7	17,4
30-44 urte	24,1	26,5	24,6	25,0	24,6
45-64 urte	25,3	25,0	26,4	25,8	26,7
65 urte eta +	21,5	15,8	17,2	17,8	18,2
65-74 urte	10,4	8,0	8,8	9,0	9,5
75 urte eta +	11,1	7,9	8,4	8,7	8,8
OROTARA	100	100	100	100	100


2016					
0-14 urte	16,6	18,7	16,7	17,3	14,7
15-29 urte	11,8	13,4	13,8	13,0	13,4
30-44 urte	21,9	23,0	21,9	23,0	21,9
45-64 urte	27,9	27,8	28,0	27,6	28,6
65 urte eta +	21,7	17,2	19,6	19,1	21,3
65-74 urte	9,2	9,0	10,2	9,7	10,8
75 urte eta +	12,6	8,2	9,4	9,4	10,5
OROTARA	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT eta INE. Udal errolda.

d.- Osaera jatorriaren arabera

[5. Grafikoa]

Biztanleriaren bilakaera jatorriaren arabera | Amezketa, 1981-2011



Udalerrian bertan jaio diren amezketarren proportzioa oso garrantzitsua da (%58,2), are gehiago beste lurralde eremuekin alderatuta. Bestalde, Gipuzkoako beste udalerri batean jaiotakoak herritarren heren bat dira. Aldiz, oso txikia da Espainiar Estatuan jaiotakoen proportzioa, 60-70 hamarkadan etorkinak jaso ez izanaren ondorioz.

4. taula: BIZTANLERIA JATORRIAREN ARABERA (5). AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2001 ETA 2011.					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa-eremua	Tolosalde	Gipuzkoako landa-eremua	Gipuzkoa
2001					
Udalerri bera	60,3	41,4	42,1	52,5	47,1
Herrialdeko beste udalerri bat	36,3	46,9	43,3	30,6	26,2
Hego EHko beste herrialde bat	1,3	2,4	3,3	5,0	6,0
Hego EH	98,0	90,7	88,7	88,1	79,3
Espainiar Estatua	1,8	8,0	9,9	10,4	18,5
Gainerakoak	0,2	1,3	1,4	1,5	2,2


OROTARA	100	100	100	100	100
2011					
Udalerri bera	58,2	39,7	42,5	48,8	47,8
Herrialdeko beste udalerri bat	33,5	46,2	41,2	32,4	25,6
Hego EHko beste herrialde bat	1,0	2,9	2,8	4,9	5,3
Hego EH	92,8	83,2	84,5	83,7	78,7
Espainiar Estatua	2,6	6,5	8,4	8,5	14,9
Gainerakoak	4,1	4,1	5,0	5,2	6,4
OROTARA	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT eta INE.

e.- Bereganatzeko eta galtzeko biztanleria joera egungo testuinguruan

[6. Grafikoa]

Biztanleriaren altak eta bajak udal erroldan | Amezketara, 2011-2015



Amezketako biztanleria bolumena gutxitze joeran mantentzen da aspaldidanik, baina hazkunde begetatiboa positiboa da. Beraz, errolda datuen gorabeherak erakutsi bezala, gehiago dira alde egiten dutenak Amezketara doazenak baino. Zentzu horretan, 25 eta 44 urte bitarteko biztanlerian galera handiena ematen ari da, batez ere, 2012 urteaz geroztik.


5. taula: BIZTANLERIAREN ALTA ETA BAJEN ONDORIOZKO SALDO GORDINA. AMEZKETA, 2011-2015.						
	2011	2012	2013	2014	2015	2011/15 metatua
Adinaren arabera saldoa						
0-15 urte	3	-3	-1	-6	4	-3
16-24 urte	-3	4	1	2	1	5
25-34 urte	2	-1	-5	-5	0	-9
35-44 urte	4	3	4	1	-8	4
45-54 urte	-1	-4	-1	-7	3	-10
55-64 urte	-3	2	-1	-3	-3	-8
65 urte edo +	-1	-1	-5	-4	2	-9
Sexuaren arabera saldoa						
Gizonezkoak	-7	-4	-6	-5	-3	-25
Emakumezkoak	8	4	-2	-17	2	-5
Lurraldeen arabera saldoa						
Gainontzeko Gipuzkoa	2	-3	-11	-25	-11	-48
Araba eta Bizkaia	-1	1	-1	-3	1	-3
Espainia	1	4	7	6	7	25
Atzerria	-1	-2	-3	0	2	-4
OROTARA	1	0	-8	-22	-1	-30

Iturria: EUSTAT eta INE. Udal errolda.


f.- Genero arteko oreka

[7. Grafikoa]

Emakumezkoen presentzia belaunaldi desberdinetan (%) | Amezketa eta bere testuingurua



Amezketan badira genero desoreka garrantzitsuak belaunaldi desberdinetan. Joera naturalaren kontra, 65-74 herritarren artean emakume gutxi daude (%39,5). Belaunaldi gazteagoetan ere antzerakoa gertatzen da, ez hain modu gordinean.




1.2. Bizikidetza-unitateen bilakaera

a.- Bolumena

[8. Grafikoa]


Bizikidetza-unitateen bilakaera (1842=100) | Amezketaren eta bere testuingurua (1842-2011)



b.- Osaera tamainaren arabera

[9. Grafikoa]

Bizikidetza-unitateen bilakaera, tamainaren arabera | Amezketa, 1991-2011



Azken bi hamarkadetan, bi kidez osaturiko etxebizitza-unitateak 43 izatetik 120 izatera igaro dira, eta pertsona bakarreko bizikidetza-unitateekin ere, antzerako hazkundea eman da. Kasu bietan, zahartzaroari loturiko fenomenoak izan ohi dira, eta era berean, familia ereduaren eraldaketaren seinale dira.

6. taula: BIZIKIDETZA-UNITATEAK TAMAINAREN ARABERA (%). AMEZKETA ETA TESTUINGURUA, 2001-2011					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa-eremua	Tolosalde	Gipuzkoako landa-eremua	Gipuzkoa
2001					
Kide 1	16,6	19,9	22,0	20,6	21,2
2 kide	21,7	23,5	24,9	23,8	26,0
3 kide	23,2	20,6	21,4	20,7	22,3
4 kide	22,0	21,9	21,2	21,9	21,6
5 kide	8,6	8,9	7,0	8,4	6,3
≥6 kide	8,0	5,1	3,4	4,7	2,6
OROTARA	100	100	100	100	100
2011					
Kide 1	22,7	22,5	22,3	22,5	25,0
2 kide	32,0	28,5	29,9	30,7	32,1
3 kide	18,7	21,1	21,9	20,8	20,8
4 kide	16,0	21,2	20,7	19,9	17,6
5 kide	6,7	4,6	3,7	4,4	3,6
≥6 kide	2,7	1,6	1,4	1,5	0,9
OROTARA	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT eta INE. Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuak.


c.- Osaera motaren arabera

7. taula: BIZIKIDETZA-UNITATEAK MOTAREN ARABERA (%). AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2001-2011.					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa-eremua	Tolosaldea	Gipuzkoako landa-eremua	Gipuzkoa
2001					
Bikotea, seme-alabarik gabe	10,2	-	-	-	18,8
Bikotea, seme-alabaduna	44,3	-	-	-	42,4
Aita, seme-alabaduna	2,2	-	-	-	2,1
Ama, seme-alabaduna	10,8	-	-	-	8,6
Beste mota	32,5	-	-	-	28,1
OROTARA	100	-	-	-	100
2011					
Bikotea, seme-alabarik gabe	22,7	21,5	23,3	25,5	25,3
Bikotea, seme-alabaduna	38,7	37,6	38,0	38,3	35,7
Aita, seme-alabaduna	1,3	2,2	2,7	2,4	2,3
Ama, seme-alabaduna	6,7	5,8	8,7	6,8	9,0
Beste mota	29,3	32,7	27,3	27,0	27,6
OROTARA	100	100	100	100	100

Oharra: Sekretu estatistikoa dela medio 2001 urterako ezin da landa-eremuko eta eskualde mailako daturik eskuratu. Iturria: EUSTAT eta INE. Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuak.

2. EGUNGO EGITURA SOZIODEMOGRAFIKOA ETA BIZIKIDETZA-UNITATEAK


2.1. Biztanleriaren banaketa espaziala



[1. Irudia: Biztanleriaren banaketa, 2017]


2017 urteko apirilean, Amezketan 941 herritar daude eroldaturik. Horietatik, 408 herritar nukleoan bizi dira, udalerri osoko herritarren %43a, alegia. Gainontzeko 533 herritarrek udalerriak dituen landa-eremu zabalean barreiatuta daude, goiko irudiak irudikatu bezala.

[10. Grafikoa]
Biztanleriaren banaketa espaziala | Amezketan, 2017



2.2. Belaunaldien arteko oreka

[11. Grafikoa]
Biztanleriaren adin egitura (%) | Amezketan, 2017




Lehen ikusi bezala, gazteen urritasuna udalerri osoari eragiten dion fenomeno da. Udalerri barruan, ordea, hauen presentzia oso pertsua da nukleoan zein landa-eremuan. Oro har, ez dago nukleoa eta landa-eremuaren artean belaunaldi desoreka handirik. Joeraz, hori bai, adinekoen presentzia handiagoa da landa-eremuan nukleoan baino.

8. taula: BIZTANLERIA ADINAREN ARABERA. AMEZKETA, 2017			
	Landa-eremua	Nukleoa	AMEZKETA
0-14 urte	70	87	157
15-29 urte	47	66	113
30-44 urte	81	115	196
45-64 urte	112	161	273
65 urte eta +	98	104	202
65-74 urte	45	42	87
75 urte eta +	53	62	115
OROTARA	408	533	941

Iturria: Amezketako udala. Udal errolda.


2.3. Zahartzea eta gainzahartzea

[12. Grafikoa]
Biztanleriaren zahartzea eta gainzahartzea (%) | Amezketa, 2017




2.4. Genero arteko oreka

[13. Grafikoa]
Emakumezkoen presentzia belaunaldi desberdinetan (%) | Amezketan, 2017



2.5. Bizikidetza-unitateak kide kopuruaren arabera

[14. Grafikoa]
Bizikidetza-unitateak, kide kopuruaren arabera (%) | Amezketan, 2017



Hiru kidetik beherako bizikidetza-unitateen proportzioa pertsua da nukleoan zein landa-eremuan. Nukleoan, aldiz, lau kideko bizikidetza-unitateen proportzio nabarmena dago (%19,5). Landa-eremuan, ordea, azpimarratzekoa da 5 kidetik gorako bizikidetza-unitateen proportzioa (%16,1).

9. taula: BIZIKIDETZA-UNITATEAK, KIDE KOPURUAREN ARABERA. AMEZKETA, 2017.			
	Landa-eremua	Nukleoa	AMEZKETA
Kide 1	46	58	104
2 kide	33	49	82
3 kide	27	40	67
4 kide	19	40	59
5 kide	13	12	25
≥6 kide	11	6	17
OROTARA	149	205	354

Iturria: Amezketako udala. Udal errolda.

2.6. Adinekoez soilik osaturikoetxebizitza-unitateak


10. taula: ADINEKOEZ SOILIK OSATURIKO BIZIKIDETZA-UNITATEAK. AMEZKETA, 2017.					
	65-74 urte		>74 urte		OROTARA ADINEKODUN UNITATEAK
	Bakarrik	Binaka	Bakarrik	Binaka	
Landa-eremua	6	7	11	4	149
Nukleoa	5	8	12	6	205
AMEZKETA	11	15	23	10	354

Adineko pertsonen bizikidetza-unitateak udalerriko bizikidetza-unitateen %16,6a dira. 33 bizikidetza-unitate 74 urtetik gorako pertsonak osatzen dute, eta horietatik gehiengoa bakardade egoeran bizi dira. Zaurgarritasun egoeran dauden bizikidetza-unitateak maila berean aurki daitezke landa-eremuan zein nukleoan.

3. ETORKIZUNeko AGERTOKI SOZIODEMOGRAFIKOA

3.1. Biztanleriaren balizko bolumena 2026an

[15. Grafikoa]
Biztanleriaren bilakaera eta prospektiba | Amezketa, 2000-2027




11. taula: BIZTANLERIAREN EPEALDIKO HAZKUNDE-TASA ETA PROSPEKTIBA (%). AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2002/27 epealdia					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa-eremua	Tolosaldea	Gipuzkoako landa-eremua	Gipuzkoa
Hazkunde-tasa erreala					
2002/07	-3,4	6,4	2,5	5,2	2,9
2007/12	2,3	6,5	4,3	5,1	2,2
2012/17	-3,6	1,2	1,7	1,3	-0,2
Hazkunde-tasa (*)					
2017/22	-0,8	1,6	0,7	1,1	-0,6
2022/27	-0,7	1,3	0,4	0,9	-1,1

(*) Amezketa, Tolosaldea, Tolosaldeako landa-eremua eta Gipuzkoako landa-eremuko kasuan biztanleriaren balizko mugimendu naturala aintzat hartzen du soilik, eman daitezken migrazioak aintzat hartu gabe.

Iturria: EUSTAT eta INE. Udal errolda. Ekoizpen propioa.

[16. Grafikoa]
Balizko biztanleria bolumena, mugimendu naturalaren arabera | Amezketa, 2017-2027




Egungo egitura demografikoaren gainean, azken urteetako ugalkortasuna mantenduz gero, datorren hamarkadan espero daiteke biztanleria galera apal bat gertatzea. Hau, ordea, ez da beste landa-eremuetan espero. Azken bosturteko migrazio joerak mantenduz gero, galera hori handixeagoa izan daiteke, 900 biztanle azpitik kokatuz.

3.2. Belaunaldien arteko balizko oreka


[17. Grafikoa]

Biztanleriaren adin egitura egun eta hamarkada barru | Amezketa, 2017



[18. Grafikoa]


Biztanleriaren mugimendu naturalaren balizko prospektiba, adinaren arabera | Amezketa, 2017-2027



3.3. Zahartze eta gainzahartzearen balizko eragina

[19. Grafikoa]

Biztanleriaren balizko zahartzea eta gainzahartzea (%), mugimendu naturalaren arabera | Amezketa, 2017



Hurrengo bosturtekoan ez da zahartze tasaren handitze nabarmenik espero udalerri mailan. Areago, baliteke landa-eremuan zertxobait jaistea. 2022 urtetik aurrera, ostera, zahartze tasa nabarmen handituko da, 65 eta 74 urte bitarteko populazioaren handitzeagatik. Fenomeno hau oso nabarmena izango da udalerriko nukleoan.

3.4. Adinekoek soilik osaturiko balizko etxebizitza-unitateak

12. taula: ADINEKOEZ SOILIK OSATURIKO BALIZKO BIZIKIDETZA-UNITATEAK. AMEZKETA, 2027.					
	65-74 urte		>74 urte		Hutsik geratuko diren etxebizitzak
	Bakarrik	Binaka	Bakarrik	Binaka	
Landa-eremua	14	3	16	2	10
Nukleoa	16	5	7	6	18
AMEZKETA	30	8	23	8	28

Amezketako biztanleriak izango duen zahartze joeraren ondorioz, adinekoek soilik osatutako bizikidetza-unitateek nabarmen egingo dute gora. Esaterako, bakarrik biziko diren 65-74 urteko pertsonen kopurua ia hirukoiztuko da. Landa-eremuan, berriz, bakarrik bizi diren 74 urtetik gorako pertsonen kopurua %45a haziko da.

Biztanleriaren zahartzeak ere etxebizitzaren erabilera mailari eragiten dio. 2027 urterako 28 etxebizitza hutsik gelditzeko arriskua dute; horietatik 10 landa-eremuan kokatzen dira.